



Bilboko
Elizbarrutia
DIÓCESIS DE BILBAO

ALKARTE ABEGITSUAK

XABIER ESKAURIATZA Y GUILLERMO AYUSO

OTOITZALDIA

GARIZUMA 2021



Bilboko
Elizbarrutia
DIÓCESIS DE BILBAO

«ADISKIDE ETA SENIDE, COMUNIDADES ACOGEDORAS»

A AHOLKUA ...

i Otoitzaldia norbaitek gidatzea komeni da. Ardura hori dauanak markatuko ditu denporak, zeinuak... Honako otoitzaldi hau 45 minututan egiteko pentsatuta dago eta osorik zein zati bat erabili daiteke, etenbarik Jainkoa entzunez eta Berarengan arreta jarriz. **Gorritz** markatuko ditugu jarraibideak otoitza gidatzen dauan pertsonak kontuan hartu daizan..

B SARRERA ...



“Bihotz-barritzeko aldi honetan, barritu daigun gure fedea”, dinosku Frantzisko Aita Santuak 2021ko Garizuma aldirko. Baraua, otoitza eta limosna dira baldintza eta gure bihotz-barritzearen adierazpen.

Barauaren bidez, “gure bizitza traba egiten dauan guztitik aske izten dogu guregana danean behartsu baina ‘grazia eta egiaz’ beteta datorren Hari gure bihotzaren atea zabaltzeko”.

Otoitzaren bidez, “itxaropena eta inspirazioa eta gure misinoan sortzen diran erronkak eta hartu behar doguzan erabagiak argitzen dituan barruko argia emoten jakuz... Barrentasunean, samurtasunaren Aita aurkitzeko dei egiten jaku.

Karidatea, “sufritzen, bertan behera itzita edo estutasunean dagozanak” zaintzeko bidea da, batez be, mundu osoan hedatuta dagoan pandemia garaian.


Dei egiten deusuegu, Garizuma aldi honetan, itxarote-jarreraz kokatu zaitezten. Sinisteko aldia da, hau da, “Jainkoari gure bizitzan harrera egiteko eta gure artean bere bizilekua jarten izteko” aldia.

Hasierako etenaldia (3 minutu) egoera aztertzeko eta non nagoan eta noratz noan pentsatzeko. Hasierako eskaera irakurri.




HASIERAKO ESKAERA

Arren eskatzen deusuegu, Jauna, bihotz-barritzeko prest egon gaitzan, aurrera egin daigun alkarte abegitsu eta lagun hurkoari bidera urteten deusan alkarte izan gaitzan.

 **ABESTIA** "Se mi luz", Ain Karem.

**ENTZUTEKO
KLIKATU IRUDIAN**



Abestiagaz batera, kandela biztu iluntasunaren erdian Argia agertzen dala irudikatzeko. Argi hori biztuta euki otoitzaldi osoan, albo batean, lagun eginez.

C JAINKOAREN BERBEAGAZ

Jainkoaren Berbeagaz otoitz egite hau bakarka ala alkartean egin daiteke. Otoitzaren hasiera honetan aukeratu zelan egin une hau, **BAKARKA** ala **ALKARTEAN**.

Bakarka lantzeko, samariar onaren parabola joten dogu egokiago. Alkartean lantzeko, Apostoluen Eginak liburuko txatala hartu.



BAKARKA OTOITZ EGITEAN. SAMARIAR ONA LK 10, 29-37

Idazkia astiro eta arretaz irakurri; ondoren, minutu bi hartu nork bere egiteko eta pasarte honen inguruan gogoeta egiteko galderen erantzunak batera jarri.

"Baina lege-maisuak, itauna bidezkoa zala adierazo nahirik, esan eutson Jesusi: Eta nor da nire lagun hurkoa? Jesusek orduan: Behin baten, bajoian gizon bat Jerusalemetik behera Jerikorantz, eta lapurren eskuetan jausi zan. Lapurrek, eukazanak kendu eta, egurtu ostean, alde egin eben, erdi hilda itziz. Hatan be, abade bat gertatu zan bide haretan behera eta, gizona ikusi ebanean, bidetik baztertu eta aurrera jo eban. Beste horrenbeste egin eban handik igaro zan tenpluko levitar batek be: ikustean, bidetik baztertu eta aurrera jo eban. Baina bidaian zan samariar bat bertara heldu eta, ha ikustean, errukitu egin jakon. Hurreratu eta zauriak lotu eutsozan, olio z eta ardoaz igurtzi ostean; gero, bere asto gainean jarri, ostatura eroan eta bere ardurapean hartu eban. Biharamonean, zidarrezko txanpon bi atara eta ostalariari emon eutsozan, esanez: Jagon egizu eta, gehiago gastatzen badozu, hurrengoan natorrenean ordainduko deusut. Zure ustez, hirurotan zeinek jokatu eban lagun hurko lez lapurren eskuetan jausitako bizonarekin? Lege-maisuak erantzun eutson: Haretaz errukitu zanak. Jesusen esan eutson, orduan: Zoaz eta egin zeuk be beste horrenbeste".




ACOGER



PROTEGER



PROMOVER



INTEGRAR

Ez da nahitaezkoa itaun guztiak lantzea. Frutu espirituala emoten ari dala somatu ezker, hantxe geratu. Zortzi minutu izango doguz itaun honeetakoren baten erantzunak batera jarteko.



BAKARKA LAN EGITEKO

- Bat nator parabolako pertsonaiaren bategaz ¿Zer da niretzat "errukia"?
- Noiz "hartu dot lepoan" bide-ertzean erorita dagoan norbait eta noiz "arduratu naz" jausita dagoan horretaz?
- "Samariar ona" Jausita egoana hartu, babestu, sustatu eta gizarteratu egin eban. Ze dei egiten ete deust Jainkoak ebanjelioko pasarte honetan?



ALKARTE OTOITZA EGITEKO. HASIERAKO ALKARTEEN BIZITZA ETA JARDUTEA EG 2, 44-45

Idazkia astiro eta arretaz irakurri; ondoren, minutu batzuk hartu nork bere egiteko eta pasarte honen inguruan gogoeta egiteko galderen erantzunak batera jarri.

Fededun guztiak alkartuta bizi ziran, eta dana danentzat eukien; euren lur eta ondasunak saldurik, guztien artean banatzen eben dirua, nork zer behar eban.

Ez da nahitaezkoa itaun guztiak lantzea. Frutu espirituala emoten ari dala somatu ezker, hantxe geratu. Zortzi minutu izango doguz itaun honeetakoren baten erantzunak batera jarteko.



TALDEAN LAN EGITEKO

- Hasierako alkarthe honeek eskaintzen ete deuskue beste aukerarik gaur egungo bizikidetzeta eta gizarte erarentzat?
- Zertan aldatu behar dogu jabetza-egitasmoa banatze-egitasmoagatik?
- Jainkoaren ze dei entzuten dau nire talde, parrokia edo alkartheak horren inguruan?

C

FRANTZISKO AITA SANTUAREN BERBEAGAZ

Frantisko Aita Santuaren Fratelli tutti entziklikaren txatala astiro eta arretaz irakurri. Minutu batez testua barruratu eta 8 minutu eskaini idazkiaren azpian datozen itaunetako baten erantzuna batera jarteko.



*"Ezinbestekoa dogu euskarri eta lagungarri izango dogun alkarthea non alkarri aurrera begiratzen lagunduko deusagun. Ze garrantzitsua dan alkarregaz amets egitea!".
(Fratelli Tutti, 8. zenb.)*



LAN EGITEKO

- Frantzisko Aita Santuaren pentsamentu honek gure alkarteen egoera islatzen ete dau?
- Zer falta jaku alkarte abegitsu bihurtzeko?
- Gure alkarteen ze jarduera doa senidetasuna eratzeko amets horren norabidean?

D

GEURE BERBEAGAZ

Hona hemen bakarka edo alkartean gogoeta egiteko lagungarri izan daiteken hainbat galdera:

Aukeratu galdera honeetakoren bat geure hitzaren bitartez geure esperientzia batera jarteko. Zortzi minutu eskaini.




LAN EGITEKO

- “Desbardinei” (etorkinak, gure taldeetatik kanpokoak...) zabalik gagozan pertsona eta alkarte ete gara?
- Zelan gauzatzen doguz hartu, babestu, sustatu eta gizarteratu aditzak?
- Bizitzan aurkitzen dogun “desbardinaren” aurrean, zer esaten deusagu: “etorri nire etxera” (patia), “zeure etxean lez sentitu” (sinpatia) edo “zeure etxean zagoz” (enpatia)?



ABESTIA “*Tu modo*”, Cristóbal Fones SJ

**ENTZUTEKO,
KLIKATU IRUDIAN**



Abestia entzuten dan bitartean, samariar onaren irudia proiektatu, ahal izan ezkeru.

Gizon horrengan Jesus ikusiko dogu eta besteengana zelan hurreratzen zan, zelan zaintzen ebazan, zelan arduratzen zan jenteez, irudikatuko dogu. Jesusen egiteko era hori geure egiten lagundu deigula.

Abestia amaitu eta gero, minutu batez isilik geratuko gara

E AMAIERAKO OTOITZA

Alkarregaz esango dogu, ahapaldi bat taldearen erdiak eta beste ahapaldia beste erdiak.

Jauna, gizadiaren Aita, gizon eta emakume guztiak duintasun beraz
sortu zenduzana, isuri gure bihotzetara senide-sena.

Argitu gaizuz, bategite, alkarrizketa,
zuzentasun eta bakea amestu daiguzan.

Adoretu gaizuz,
gizarte sanoagoak eta mundu duinagoa sortu daiguzan,
hau da, gose, pobretasun, indarkeria eta gerra bako
gizarte eta mundua.

Jainko gurea, maitasunezko hirutasun,
zure jainko barrukotasunaren indarretik
isuri guregan senide maitasunaren ibaia.

Lagundu kristauoi barri ona bizitzen
eta kristo gizon eta emakune bakotxarengan ezagutzen,
mundu honetako baztertu eta ahaztuen
larritasunetan kurutziltzatuta eta altxatzen dan
gizon eta emakumearengan berbiztuta ikusteko.

(Fratelli tutti entziklikaren azkeneko otoitza)

F AZKENEAN ALKARREGAZ ABESTEKO

Se canta a coro el canto final.

Zabaldu egizuz Jauna
zure errukizko ateak
eta askatu guregan
pekatuaren kateak.
Parka, Jauna, zure
semeon hutsegiteak.

Parkatu eiguzu Jauna
egin dogun txarragaitik,
parkatu baita egiteko
itsi dogun onagaitik,
eta ez gaitez
aldendu zure bidetik.